

ANDREKALE

Andrekale

Urumea kaleari Andrekale esan izan dio beti hemengo jende edadetuak. Nekane Idarreta, Kaxko elkarteko kideak kontatzen duenez: “Gure etxean, aitak beti horrela izendatzen zuen gaur Kardaberaz den kalea. Baina Urumea zuen izen ofiziala”.

Izen bikoiztasun horrek jakin-mina sortu zion Idarretari: “Zer da, jendearen ohitura, edo kaleak noizbait izan zuen izen ofiziala?”.



Argazkia: Alberto Elozegi

IZEN OFIZIALA ZEN. Gai hori ikertzen hasi, eta artxibo lanari esker, Pepi Mujikak eta artxiboaren arduradunak dokumentu batzuk bilatu zituzten. Agirietan jartzen duenez, 1896an Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei gomendio egin zien ordura arte erdara hutsean idatzita zeuden kale izenen erroterluak euskaraz ere jartzeko. Horren ondorioz, Hernaniko Udalak egun Kardaberaz kalea denari, bi izen hauek jarri zizkion: Andrekale euskaraz, eta Urumea kalea gaztelaniaz.

Beraz, ofizialki 1896tik Andrekale izan zen frogak badira, baina artxibo lan handia dago egiteko: izen

hori noiz arte izan zuen, zergatik galdu zen, beste herri batzuetan izen hori azaltzen den.

El objetivo de esta entrevista es que conste por escrito lo que hemos recibido por transmisión oral y sirva para una posterior investigación.

ZERGATIK “ANDREKALE”? Dokumentu idatzietan ez da izenaren arrazoirik topatu. Ahozko testigantzetan oinarrituta, teoria bat baino gehiago daudela dio Idarretak: *“Batzuek esaten dute, Kale Nagusian finkatzen zirela denda dotoreak, eta apain jantzitako jendea. Aldiz, Andrekaleen egiten zituztela beren lanak emakumeek”*. Bi atariko etxeak dira nagusi Hernaniren egiturari, eta horrek laguntzen du herrian *“gune publikoa”* eta *“pribatua”* bereizita zeudela dioen teoria hau. Eta garai batean, emakumeek ohitura handia zuten aulkiak etxetik jaitsi, eta kalean eserita lanak eginez hizketan aritzeko. Horrekin lotuta, Nekane Idarretak kontatzen duenez: *“Esaten da, emakumeak kartetan aritzen zirela Andrekaleen. Horregatik, Urumea kaleko festa antolatzekoan, ohitura hori berreskuratzen saiatu gara.”*

Beste teoria batek dioenez, Andrekaleen arropa garbitzaile asko bizi ziren. Aberats jendea Andrekalea etortzen zen arropa garbitzaileei bere jantziak uztera, Leokako garbitegian harrikoa egin ziezaioten. Baliteke izenaren jatorria hori izatea.

Eta hirugarren teoria, honela azaltzen du Idarretak: *“Ez ote zegoen generoen arabera kaleen banaketarik? Kale Nagusia gizonezkoena, Andrekale emakumeena, eta hirugarrena, Atzietas, animaliena.”*

Ikusten denez, Andrekale izena, garai bateko gizartearen aztarna bizia da. Garai hartako Hernaniko ohitura, bizimodu eta gizon-emakumeen arteko harremanak nolakoak ziren aztertze bide ematen duena. Nola ikertu, ordea? Ahozko testigantzak galtzen ari dira. Horregatik, artxiboa araka-

tzea, eta ez bakarrik Hernanikoa, da bide ziurrena. Nekane Idarretak ikerlariak animatu nahi ditu: *“Oso lan interesgarria litzateke izen horren atzean dagoen historia aztertzea.”*

IZENA BERRESKURATU BEHARRA. Nekane Idarretak izen hori berreskuratzeak duen garrantzia argitu du: *“Hernanin ez dago emakume izena duen kalerik, badirudi herri honetan ez garela emakumeak existitu.”* Herriko emakume talde batek, Kaxko Elkartearen bidez, Andrekale izena berreskuratze saioa egin zuen iaz. Urte horretan, ordea, Kardaberaz jaio zeneko 300. urteurrena ospatzen zen, eta ez zen garairik onena kaleari izena aldatzeko. *“Baina emakumeok jendaurrean ere agertu behar dugu herrian, eta alternatiba bat bilatzen saiatuko gara. Adibidez, bi izenak ofizial izatea”* proposatzen du Nekane Idarretak.

Parece que las mujeres no han existido en Hernani, ya que no aparecen sus nombres públicamente.

La recuperación del nombre de Andrekale sería ser justos/as con la aportación de las mujeres a la historia de Hernani.

